

ANTZUOLAKO 1. POLIGONOKO 202, 203, 233, 236 ETA 237 PARTZELAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ERRENTAN EMATEKO LIZITAZIOA ARAUTZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKO FAKULTATIBOEN AGIRIAK

1.- XEDEA

Kontratu honen xedea da prozedura irekiaren bidez Antzuolako 1. poligonoko honako partzela hauek errentan ematea: 202, 203, 232, 233, 236 eta 237 partzelak (3.171 m², 4.802 m², 8.731 m², 7.784 m², 6.941 m² eta 5.848 m² azalerak dituztenak, hurrenez hurren).

Lizitazioak bi lote ditu:

- 1. lotea: Katastroko 1. poligonoaren 202, 203, 232 eta 233 partzelen errentamendua.
- 2. lotea: Katastroko 1. poligonoaren 236 eta 237 partzelen errentamendua.

Partzelen adjudikaziodunek larretu egin beharko dituzte, gero beren azienda han bazka dadin.

2.- ARAUDI APLIKAGARRIA

Partzelak 9/2017 Legean, azaroaren 8koan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoan, ezarritakoaren arabera emango dira errentan, prestatu eta adjudika daitezen, eta, ondoreei, betetzeari eta iraungitzeari dagokionez, 33/2003 Legeari, azaroaren 3koari, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoari, eta 1372/1986 Errege Dekretuari, ekainaren 13koari, Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onesten duenari jarraituko zaie.

3.- ERRENTAMENDUAREN BALDINTZA EKONOMIKOAK

Kontratazio honetako Klausula Administratibo Partikularren Agirian zehaztutakoari jarraituz, errentamendurako ez da inolako kanonik ordaindu beharko, baina memoria bat aurkeztu beharko dute errentatzaileek, eta, han, partzelak larretzeko plan estrategiko bat.

4.- ERRENTAMENDUAREN BALDINTZAK

1. Errentamenduak 10 urtez iraungo du, kontratua sinatzen denetik hasita (eta beste bost urtez luzatu ahalko da).
2. Partzelak abeltzaintzarako erabiliko dira, eta debekatuta egongo da landa-finka bati dagozkionez bestelako erabilera oro. Hori bete ezean, errentamendua galduko da.

3. Errentamenduaren adjudikaziodunak partzela egoera onean mantenduko du. Bestela, udalak errentamendua atzera botatzeko eskubidea izango du.

Antzuolan, 2026ko ekainaren 17an.

ALKATEA.

Izptua.: Olatz Lezeta Urzelai



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK.pdf
CSV/EKS:	SINAd94bb64c-e7c1-4c8f-b436-da59211784cb